

# BARNETIK



## USTIAPEN PEDAGOGIKOA

Josiane **Aguerre-Valencia**





**Ilustrazioak:** Hegoa Arregui  
**Zuzenketak:** IKASeko lankideak  
**Maketazioa:** Xabier Elizondo  
**Argitalpena:** Unai Zubeldia  
**Argitalpen arduraduna:** Aines Dufau  
**Legezko arduraduna:** Maite Erdozaintzi-Etxart



# Lau soineko

**Urteak ditu lau soineko  
sasoika dantzaz aldatzeko**

Loreduna udaberriko  
Eguzkitsua udako

**Urteak ditu lau soineko  
sasoika dantzaz aldatzeko**

Urrezkoa udazkeneko  
Zuri-zuria neguko

# LAU SOINEKO

## HIZKUNTZA, ALDERDI GUZIETARIK LANTZEA

### IDATZIA

#### Idatziaren funtzioa ezagutzea

##### Artekoak/MS

– Lerro bakoitzean, eredu bezalako irudiak ingura itzazu. (1. fitxa)

#### Motrizitate xehea lantzea, idazketa helburu

##### Artekoak/MS

– Hostoa apain ezazu grafismo erduei jarraikiz. (2. fitxa)

## AKTIBITATE ARTISTIKOEN BIDEZ ARITZEA, ADIERAZTEA ETA ULERTZEA

### IKUSMEN EKOIZPENAK

#### Zenbait gauza marraztea

– Arbola osa ezazu ereduari jarraikiz. (3. fitxa)

#### Tresna egokiak baliatzea

– Hostoak tinda itzazu. (4. fitxa)

# GOGOETA EGITURATZEKO LEHEN TRESNAK ERAIKITZEA

## ZENBAKIAK ETA HAIEN ERABILPENAK EZAGUTZEA

### Zenbakiak erabiltzea, ber kopurua aurkitzea

#### Artekoak/MS

- Arbola bakoitzaren azpian, ber hosto kopurua duen laukia kola ezazu. (5. fitxa)

### Kopuru bat zenbatzea eta osatzea

#### Artekoak/MS

- Arbola bakoitzean 5 hosto behar dira. Multzoak osa itzazu. (6. fitxa)

## ITXURAK, HANDITASUNAK, SEGIDA ANTOLATUAK IKERTZEA

### Muntaketa bat egitea

#### Ttipiak/PS

- Hostoak osa itzazu. (7. eta 8. fitxak)

### Ttipia eta handia bereiztea

#### Ttipiak/PS

- Hosto ttipiak urdinez margo itzazu eta handiak gorriz. (9. fitxa)

### Algoritmo sinple bati jarraitzea

#### Ttipiak/PS

- Hostoak margo itzazu ereduari jarraituz. (10. fitxa)

#### Artekoak/MS

- Hostoak kola itzazu ereduaren erritmoari jarraituz. (11. fitxa)

# MUNDUA IKERTZEA

## BIZIDUNAK, OBJEKTUAK ETA MATERIA IKERTZEA

### Bizidunen ingurumena ezagutzea

#### Ttikiak/PS

- Arbola horren parteak pika itzazu eta bi arbola osa: bat udako arbola eta bestea negukoa. (12. fitxa)

#### Artekoak/MS

- Arbolak ordenan sailka itzazu, udatik negura. (13. fitxa)

































